

Herri maitea, Herri dorpea / Sebastian Gartzia Trujillo / Euskaltzaindia / BBK, 2007

Inurri bat txitxar batentzat Bixente Serrano Izko / *Berria*, 2007-10-07

Txitxarren bizimodu kantaria inurrien pilatze-lana baino laketago omen zitzaion Bitoriano Gandiagak inurri-lan mardul hau sorrarazi dio Sebastian Gartzia Trujillori, poetaren *Hiru gizon bakarka* liburu zentrala aztertzerakoan: hamar atal luze eta guztira 900 orrialde baino gehiagoko ikerketa, ohar bibliografikoez josirik lan akademiko bati dagokion bezala. Liburuak CD bat dakar berarekin, zinez eskertzekoa, irakurleak aurki ahal ditzan nahi bertze mintzo, erramolde, aipu edo erreferentzia, paperezko edozein aurkibide tematikotan baino aiseago.

Liburuan barna sartu ahala, inpresioa du irakurleak saiakeragile batek garaturiko diskurtso bat bainoago eruditu batek sailkaturiko fitxa bilduma bat dela, fitxak elkarri lotzeko ozta-ozta adina testu propio idatzi duelarik Gartzia Trujillok.

Guztiz faltsua, inpresioa. Oso diskurtso berea du egileak. Inurrien pilatze-lan metodikoa egin du, bai, baina fitxa horien antolaketan, elkarren arteko loturetan, haien segida guztiz logikoan dago saiakeragilearen diskurtsoa. *Hiru gizon bakarka* liburuaren irakurketa zehatz bat proposatzen digu: Gandiaga Euskal Herrira “bidalitako” profeta baten antzera aurkezten digu. Askapenerako Teologiaren ildotik irakurtzen ditu Gartzia Trujillok poemak: Euskal Herriaz, euskaraz, euskaldunon herri izaeraz, gure etorkizun dudagarriaz kezkarazi nahi gaituen profeta gisa, oinazez beterik, adoretzu, basati, oihulari, gogor, probokatzaile eta aldi berean herriarekiko maitemindurik, herabeti eta askapen bidea guri erakustera etorritakoa..., horrelako klabeetan gonbidatzen gaitu poetari irakurtzera.

Semiotikatik ikertu ditu poemak, errekurso formaletatik baino askoz gehiago. Hau da, Gandiagaren bizipenek, mundu sinbolikoak, erreferentzia literarioek, erlijiotasunak..., nola blaitzen duten poema liburua, profeta askatzaile baten adierazgarritzat jotzeraino. Saiakeragileak berak aitortzen du Arantzazuko fraidea inoiz ez zela formalki azaldu Askapen Teologiari loturik eta molde laikoetara itzuli zituela hainbat eta hainbat erreferentzia bibliko esplizitu edo implizitu. Halere, Gartzia Trujilloren ustez, liburuaren egitura, estiloa, izpiritua eta mezuak bete-betean egokitzen zaizkio teologia horrek aurkeztu ohi duen profeta irudiari. Hori doa frogatzen metodiko eta sakon bere lanean. Koherentzia biribileko irakurketa egin dio.

Nahiz eta ni bezalako Gandiagaren irakurlek hunkitzen gaituenak bertze kontu batzuk izan —hala nola, poemen freskotasun landua, herrikoitasuna, sentiberatasuna, indarra, lirika, musikaltasuna, hitz-jokoak, aliterazioak, onomatopeiak, hizkeraren aberastasuna...—, nahiz eta hotz geldi gaitzkeen Gartzia Trujilloren interpretazioarekin, aberasgarria suertatuko zaio edozeini lan sendo hau. Ez bakarrik poesia zaleei, baita 60. urteetatik aitzina kozkortu egin zen euskal kultura, arte, musika, literatura eta herri mugimenduen berpizkundera ezagutu/gogoratu nahi dutenei ere. Izan ere, poeta bera, haren obraren ikerleak, haren lagun, bizikide eta ezagun anitz, Gandiagak zuzen edo zeharka ukitu zituen hainbat eta hainbat auziren harira ekartzeko Gartzia Trujillok interesgarri deritzen poeta, idazle, hizkuntzalari, antropologo, arkeologo, artista, filosofo nola teologoen sorta oparo bat agertzen zaizkigu hitzez hitz mintzatzen saiakeran. Egilearen pedagogiari esker, ez da zertan espezialista izan altxor horretaz gozatzeko. Eta arlo horietako batzuetan baizik ez badago interesaturik, badu irakurle bakoitzak, CDa lagun, aukera bikaina bere gustuko kontuetan soilik sartzeko.

Joanes (itxaropenaren semea) / **Alaitz Olaizola** /
Euskaltzaindia / BBK, 2007

Ia mistikoa Javier Rojo / *El Correo*, 2007-09-12

Alaitz Olaizola Bordak antzerki mundua ezagutzen du, eta ezin uka daiteke hori erakusten duela “Joanes (itxaropenaren semea)” izeneko antzezlanean, antzezpen teknikari dagokionez behintzat. Bederatzi eszenatan banatuta dagoen lan honetan Joanesen bizitzaren bederatzi momentu desberdin azaldu nahi dizkie irakurle-ikusleei. Joanes pertsonaia berezia da, eta idazleak pertsonaia irakurle-ikusleen begietan maitagarria izatea nahi luke. Izan ere, idazleak irakurle-ikusleak pertsonaia horrek erakarrita senti daitezen nahi du. Bere mundu berezian bizi da pertsonaia, eta besteek nekez lortzen dute mundu horretara heltzea. Behin baino gehiagotan Forrest Gump euskaldun bihurtua begitandu zait pertsonaia hori. Oztopo bat du, ordea: maitagarria bihurtzeko ahaleginean pertsonaiak eduki lezakeen ironia guztia alde batera utzi baitu, eta oso transzendentalak, ia mistikoak, izan nahi duten ideien errepresentazioan geratu da. Antzerki lana erdibidean geratzen da. Drama izan nahi luke, baina tentsio dramatiko handiko momentuetan barregarri xamarra suertatzen da, eta pertsonaiaren transzendentzia horrek guztiak oso ingenuoa dirudi benetan hartzeko.

**Herri maitea, Herri dorpea / Sebastian Gartzia Trujillo /
Euskaltzaindia / BBK, 2007**

Bitoriano Gandiagaz Javier Rojo / *El Correo*, 2007-12-22

Bitoriano Gandiagaren ibilbide poetikoa aztertu nahi izan du autoreak Euskaltzaindiaren Saria irabazi duen idazlan honetan. Gandiagaren idazkietan islatzen diren planteamendu erlijiosoetan oinarrituta, poeta hark izan dezakeen gaurkotasuna azpimarratzen saiatu da Gartzia. Saiakeraren egilearekin ados egon edo ez (gehiegi miresten du Gandiaga guztiz objektiboa izateko), erudizio zabal sakonaren gainean eraiki du bere saiakera.

Zirrikituak / **Aintzane Galardi** / Euskaltzaindia / BBK, 2007

Zirrikituak Goizalde Landabaso / *Radio Euskadi*, 2007-10-07

Edozein barru ezagutzeko ez dago zirrikituetatik begiratzea baino hoberik. Aintzane Galardiren liburua eskuetan kafea hartzera joan nintzen *Desberdina* deitzen zen kafetegi batera. Ederto definitzen du horrek liburua. Poesia liburua baino gehiago delako. Aipuez jantzia, marrazki eta irudiz hornitua, liburu bat baino opari bat zabaltzen ari zarela dirudi. Poesia esperimentalak esaten zioten aspaldi, eta denbora da horrelakorik aurkitzen ez nuenik. Izugarri gustatu zait. Baina onartu ere onartu behar dizut gauza ezberdinak maite ez dituztenek ez dutela poesia-bilduma hau ulertuko, ezta apreziatuko.

bihotz ortopedikoa bihotz hila da, horregatik ez dut bihotz-minik. / Hala ere, Poltsikoan daramat Badaezpada Bihotz ez-ortopedikoa.

Munch-en *Oihua*, greziar eta erromatar klasikoak, asiar irudi, istorio eta idazkerak, eta poesia bakoitzari bide egiteko aipu bat. Esaterako Joseph Pala ui Febre-rena. “Si te hablo del beso es ya besarte un poco”, Gabriel Arestiren “Itzala eman nahi duenak argia hartu behar du”, Shakespeareren “Edonork menpera dezake sufrimendua, sentitzen duenak salbu”. Aipuek osotzen dute egilearen poemak. Olerkien gaineko hausnarketa luze eta zabala da. Esaldi ederrak alokatu ditu; Gil de Biedmarena kasu: “Poeta izan nahi nuela uste nuen baina poema zen izan nahi nuena”. Hizkuntzak nahastu egiten dira, jolasak, marrazkiak, geometria... babel erabatekoa dirudi lanak.

Poema asko ez dira poema niretzat Goizetan Pasilluaren bi puntetan gaudenean Gurutzatu artean Gure begiek Non pausatu ez dakitenean Segundu horiek Hitz gabeko poemak dira.

Itzel gozatu dut liburu honekin, patuak neure eskuetara ekarritako lana izan da. Izan ere, ezer aurpegiratu badiezaioke aurkezpenarekin du lotura. Sail honek aurkezpen arruntegia du, eta askotan, benetako altxorak eduki arren liburu dendetako apaletan galtzen dira. Galera handiegia izateraino.

Zirrikituak / Aintzane Galardi / BBK-Euskaltzaindia, 2007

Bidaia poetikoa Javier Rojo / *El Correo*, 2007-08-29

Aintzane Galardi Portugalen "Zirrikituak" izeneko poema liburuarekin 2006.ko Felipe Arrese Beitia saria eskuratu zuen. Poesia hauek zenbait ezaugarri nabarmen daukate. Kulturalismorako joera deigarria izan daiteke lehenengoa, bertako erreferentzietan, artearen, mundu klasikoaren edota Txinaren kulturaren islak agertzen baitira, poema bakoitzaren hasieran jartzen diren zitak ahaztu gabe, poesiaren bidezko bidaia izango balitz bezala liburua.

Beste ezaugarri bat, poema hauek narratiboak izateko joera daukatela izan daiteke, gehienetan istorio baten aztarnak agertzen baitira, desengainuz eta ironiaz beterik askotan. Edonola ere, liburu hau oso eredu nabarmenean oinarritzen da: Begi bistakoa iruditu zait Jose María Álvarez-en itzala, zuzen zein zeharkakoa, zeren askotan aipatzen den euskal poeta ezagun batek ere idazle espainiarraren eragin zuzena jaso baitzuen bere garaian.

Joanes (itxaropenaren semea) / **Alaitz Olaizola** /
Euskaltzaindia / BBK, 2007

Ia mistikoa Javier Rojo / *El Correo*, 2007-09-12

Alaitz Olaizola Bordak antzerki mundua ezagutzen du, eta ezin uka daiteke hori erakusten duela “Joanes (itxaropenaren semea)” izeneko antzezlanean, antzezpen teknikari dagokionez behintzat. Bederatzi eszenatan banatuta dagoen lan honetan Joanesen bizitzaren bederatzi momentu desberdin azaldu nahi dizkie irakurle-ikusleei. Joanes pertsonaia berezia da, eta idazleak pertsonaia irakurle-ikusleen begietan maitagarria izatea nahi luke. Izan ere, idazleak irakurle-ikusleak pertsonaia horrek erakarrita senti daitezen nahi du. Bere mundu berezian bizi da pertsonaia, eta besteek nekez lortzen dute mundu horretara heltzea. Behin baino gehiagotan Forrest Gump euskaldun bihurtua begitandu zait pertsonaia hori. Oztopo bat du, ordea: maitagarria bihurtzeko ahaleginean pertsonaiak eduki lezakeen ironia guztia alde batera utzi baitu, eta oso transzendentalak, ia mistikoak, izan nahi duten ideien errepresentazioan geratu da. Antzerki lana erdibidean geratzen da. Drama izan nahi luke, baina tentsio dramatiko handiko momentuetan barregarri xamarra suertatzen da, eta pertsonaiaren transzendentzia horrek guztiak oso ingenuoa dirudi benetan hartzeko.

Arkitektoa / Txema Garcia-Viana / Euskaltzaindia / BBK, 2007

Arkitektura funtzionala Bixente Serrano Izko / *Berria*, 2007-09-23

Arkitekto protagonistak ez bezala, ez dirudi bere Obra Handia egin nahi izan duenik Txema Garcia-Vianak nobela honetan, genero eleberri funtzional bat baizik. *Thriller* historiko bat dugu hau. Historiko bainoago, *thrillerra*: XIII. mendeko Donostian kokatua, baina iraganaren berreraikuntza lanean neke handirik hartu gabe. Argumentuaren testuinguratzekoan, Araba, Gipuzkoa eta Donostia bera gaztelarren esku gelditu berri zirenean gaude, Nafarroako erreinua erdira murriztu izana: konkista militarra tartean Arabak, armadaren presentziak eskaintzen dituen “argumentuen” bidez Gipuzkoak, bi-biek gaztelarrei men egin zietenean. Nobelako jendeek, Donostiako gaskoiek, euskaldunek eta elizgizonek, bi egoerak ezagutu dituzte, konkista aurreko eta ostekoa, alegia. Egoera hartan, bere kasa asmatu ei du egileak giro soziopolitikoaren argumentuaren egiantzari begira egia historikoari baino gehiago. Izan ere, Donostiako gaskoiak, hiriaren agintariak, ongi moldatu omen dira egoera berrira, eta bertako euskaldunak nola hiria fundatu aurreko elizgizonak, San Sebastian komentu zaharrekoak, gaskoien nagusitasunari oldartzen zaizkio, Nafarroako erreinuaren alde. Ezezaguna zaigu alde horretatik egia historikoa, baina badakigu Arabako Lautadan gauzak alderantziz gertatu zirela konkista kanpaina berberean: hiriko biztanleek (“frankoek”) egin ziotela aurre armada gaztelarrari, eta Lautadako nekazal jauntxo euskaldun anitzen laguntza izan zutela konkistatzaileek, errege nafarrek bultzaturiko hirien botere berri eta gero eta zabalagoaren beldur. Logikoago lirudike, hortaz, pentsatzeak Gipuzkoan ere burgesek, printzipioz, Nafarroako errege-erreginen aldekoagoak izanen zirela inguruko jauntxo euskaldun nekazariak baino.

Bego horretan testuinguratze historikoaren eskasia eta anakronismo batzuk (izurri beltzaren presentzia XIII. mendean, alegia), fikzio lan batean arrunt garrantzizkoagoak direlako argumentuaren ehundura, osagai narratiboen harilkatzea eta baliabide literarioen egokitzapena. Alde horretatik, bertze pretentsiorik gabeko *thriller* gisa, ongi funtzionatzen du nobelak.

Giro soziopolitikoaren asmazio historikoa, faltsua edo ez, istorioaren zerbitzura dago, eta zementu egokia ematen dio eraikin literario funtzional

honi. Intrigako osagaiak ongi dosifikaturik daude narrazioan zehar, solteago lehen hiru ataletan, gorputza eta zentzua hartuz hurrengo bietan egileak asmatu duen giro soziopolitiko haren barnean, korapiloa askatzeko azkeneko bi ataletan, lekua utziz amaieran sorpresari, beti ere intrigaren mesedez eta tramaren logikari kalte egin gabe. Akaso, irakurle honen aburuz, kasualitate gehiegiri esker eta azkarregi lortzen ditu protagonistak seigarren atalean misterioa argitzerakoan giltzarri zaizkion zantzuak.

Baliabideei dagokienez, estilo hanpurutsu halako bat egokitu die solaskideei eta protagonistaren kontakizunari, bertze garai historikoetan gaudelako sentsazioa emateko, irakurketa erraza oztopatu gabe. Intrigaren gertaerak, hein handi batean, elkarriketen bidez doaz ezagutzen: *thriller* batentzat astunegia izan daitekeen baliabidea, baina tentuz eta trebe ibili da egilea sentsazio horretaz irakurlea askatzeko, solaskideen erreakzio biziak eta are ustekabeak tartekatzen.

Oro har, ez gaude nobela historiko baten aurrean, ezta historia eginen duen baten aurrean ere, iraganean kokatu eta *thriller* generoari dagozkion ezaugarriei egokiro eusten dien narrazio baten aurrean baizik, generoaren zaleek arin eta eroso irakurtzeko modukoa. Lastima opor aurretik zabaldu ez izana.

Zirrikituak / Aintzane Galardi / Euskaltzaindia / BBK, 2007

Munduari bira Jon Kortazar / *El País*, 2007-10-22

2006. urteko BBK-Euskaltzaindia Saria irabazi zuen Aintzane Galardi Portuk (Oihartzun, 1969) *Zirrikituak* lanarekin. Urte bi lehenago ere Sari bera eskuratu zuen, dirudienez lantzen duen estetika oso deigarria zaie epaimahaikoei, eta dirudienez ez soilik mahai horretakoei. Beste sari bat eskuratzekotan izan zen liburua bera. Pena da baina, plaza bakar batean agertzea Galardiren lana, zeren poetak badu ahots berezi bat eta mereziko luke duen baino oihartzun handiago izatea.

Galardiren poesia kulturalista da, *ni*-aren begietatik ikusten du mundua, eta sinbolismoaren bideetatik dabil bere espresio mundua. Zirrikituak poetika bati begiratzeko moduak eta begiak dira. Liburuak, eta hauxe da bere lehen ezaugarria, batasun-hari sendoa erakusten du. Grezia klasikoko munduak zabaltzen du eta Ekialdeak bukatu. Artean beste zirrikitu bi zabaltzen dira: bata sentikortasunerantz eta bestea hego odolduetara, munduaren orratzaren lau norabideak marraztuz.

Poema bakoitzaren buruan aipamen bat jartzeko ohitura du Galardik eta aipuak poemaren norabidea markatzen du, eta bere osotasunean hartuz bere irakurketa zabalen berri ematen dute, norabide askoko munduari bira emateko orduan lagungarri gertatzen diren mugarri gisa jarriak dira hor. Noiz edo noiz José María Álvarez, poeta etorri zait gogora liburua irakurtzeko orduan, aipua poemaren materiala ere badelako, ezin delako poema irakurri aipu hori kontuan hartu gabe. Sentikortasunarekin batera espresio fin bat mantentzen du Galardik, eta ezin da esan bere poesiak ez duela indar finik, ikuskera pertsonalaren matazan.

Hitza eta irudia batzea maite du poetak. Batetik ohi bezalako poema bisualak ematen ditu argitara, bere joko tipografikoekin poemaren irudiak sortzen dituztela. Baina, gainera, pintura eta poesia, edo fotografia eta poesia batera ematen ditu orrialdean eta poema-liburu hau ezin da ulertu poetak jarri dizkion irudiak kontuan hartu gabe.

Bidea, agian, ez da berezia, baina oso modu pertsonalez egiten du poesia *Zirrikituak* liburuan Aintzane Galardik.

Arkitektoa / Txema Garcia-Viana / Euskaltzaindia / BBK, 2007

Ertarora misteriozko bidaia Lorea Amilibia / Deia, 2007-10-23

Misterioa du ardatz Txema Garcia-Vianak, *Kartxik* idatzitako *Arkitektoa* izenburu duen eleberriak. Erdi Aroa garai aproposa da horretarako, egileak frogatzen duenez. Eliza baten eraikuntzan sortzen da misterioa, eta beronen ikerketa da istorioaren gai nagusia. Ikerketak aurrera egin ahala, orduko gizartearen gorrotoak eta haustura latzak agerian uzten dituen kontakizuna da 2006ko Txomin Agirre saria jasotakoa. Hala ere, fikzioa gailentzen zaio kontestu historikoari, batzuetan bestela dirudien arren. Izurriteak, matxinadak, heriotza... kutsu poliziakoa hartuko du orduan kontakizunak.

Horrekin batera, kontakizunerako aukeratutako Erdi Aroko momentu historikoa ere ez da nolana hikoia, zalantza askoko garai ezegonkorra da, hain zuzen, Gipuzkoak Gaztelarekin bat egin zueneko aukeratu baitu egileak, Txema Garcia-Viana donostiarrak. Izan ere, ordukoa da Gipuzkoa Nafarroaren mendeko izatetik Gaztelakoa izatera pasatu zen garaia. Gainera, Donostia aldean lekutu du egileak sinesgarritasunik galtzen ez duen istorioa, bere jatorriari men eginez.

Kontakizunean zehar, bestalde, ematen diren garai hartako datu asko dira egiazkoak, besteak beste, erregeak, beraien arteko tirabirak, elizak, monastegiak edota gaskoien presentzia ia absolutua garai hartako Donostian. Hala ere, egin zezakeen eleberri historikotik aldentzen da nahita, horra egilearen erronka.

Gonzalo de Montilla, eliza eraikitzeke ardura duen burgostar arkitektoa da pertsonaia nagusia, baita narratzailea ere. Halabeharrez, bere burua giro gatazkatsu batean murgilduta ikusten duen pertsonaia da arkitektoa. Bertako jendeaz eta ohiturez bere ikuspegiak ematen dituen narratzaile-pertsonaia da, are sinesgarriago eginez kontakizuna. Horretarako, oztopoak oztopo, arkitektoak eliza eraikitzea izango du helburu nagusia, garai hartan Donostian bizi zen enfrentamendu giroa gainditu beharreko traba suertatuko zaio.

Nekerik gabe doan irakurketa suertatu zaigu, hala gertatu zaigu guri bederen, Erdi Aroan kokatua egon arren istorioarekin bat datorren hizkera

aukeratu baitu egileak. Hizkuntza aberatsa darabilen arren, inondik erè ulergarritasunean estropezurik eragiten ez duen idazkera du liburuak. Antzinako kutsua sumatzen zaio, hori bai, horretan egilearen eragina, zenbaitetan gaur egun hain arruntak ez diren hitzak erabiltzen dituenez.

Baina ezinbestean, istorioaren hari narratiboak du garrantzia, idazkera bigarren maila batean gelditzen delarik. Mezuak erraztasunez ematen ditu, sintaxia korapilatsuetatik ihesi... irakurleak sumatuko du horretarako ahalegina. Horixe Txema Garcia-Vianaren meritua.

Erdi Arora jauzi egiteko gonbitea da *Arkitektoa*, atzera bidaia. Bertako jendeak kontatutako pasadizoetara salto egiteko aukera. Gaurkotasunetik ihes egiteko parada da, deskribapen eta hainbat elkarrizketetan gertatu zaigunez... gaskoi eta euskaldunen arteko liskarrak zirela eta, esate baterako, portuko merkatari eta arrantzaleen artekoak, hain zuzen. Eta uste ez dugun bezala, orduko gizartean dena ez zen gaitza, beste askorik ere bazen... *Arkitektoak* horixe frogatzen duenez, Kartxiren laguntzaz.